Txarritto:
(txarrittoa!, txarrittue!)
Ugerdo

Txepetx:
(txepetxa!)
Txikia

Zapo:
(zapoa!, zapue!)
Tranposoa

Zorri:
(zorridxe!)
Txiki-txikia

2. IZAERAZKO EZAUGARRIAK

2.1.-ADIMEN GITXIKO PERTSONARI:

Argibako farola:
(argibako farolie!)
Adimenbakoa

Artaburu:
(artaburuori!, artaburue!)
Kirtena

Astokilo:
(astokilloa!, astokillue!)
Inozoa

Astokirten:
(astokirtena!)
Inozo astokoa

Astokume:
(astokumie!)
Indarraz jokatzen dauana

Azatronko:
(azatronkue!, azatronkoa!)
Tonto handia

Babalastro:
(babalastroa!)
Ergel, babua

Babazto:
(babaztoa!, babaztue!)
Gizon zakar zabarra

Burubako:
(burubakoa!, burubakue!)
Kaikua

Burugogor:
(burugogorra!)
Kirtena eta tematia

Gau:
(gaue!)
Argibakoa

Inuzente:
(iñuzentie!)
Inozo ganorabakoa

Kaiku:
(kaikue!)
Lelo, tentela

Kokolo, kokola:
(kokoloa!, kokolie!)
Gizajoa, maliziarik ez dauana

Lapiko:
(lapikoori!)
Ergela

Lelo, lela:
(leloa!, lelue!, lelie)
Tentelaren parekoa

Lerdo, lerda:
(lerdoa!, lerdie!)
Mamala

Mamala:
(mamalie!)
Emakume lerdo edo tontoa

Mozolo:
(mozoloa!, mozolue!)
Ergel geldoa

Papalerdo:
(paplerdoa!, pepelerdoa!)
Ez dana ezertaz konturatzen

Papau:
(papaue!)
Papalerdo, argibakoa

Tentel:
(tentela!)
Memeloa

Tontolapiko:
(tontolapikoa!)
Adimen eskasekoa

Txatxala:
(txatxalie!)
Berba larregi egiten dauana

Txotxolo, txotxola:
(txotxoloa!, txotxolie!)
Tentel txoriburua

2.2. GANORABAKOARI:

Agure zoro:
(agure zoroa!, zorue!)
Ganorarik bakoa; bere adinari ez dagokiona

Buruarin:
(buruariñe!)
Txoriburu, zentzubakoa

Burubako:
(burubakoa!, burubakue!)
Txolin, ergela

Ganorabako:
(ganorabakoa!, ganorabakue!)
Sustentzibakoa

Gatzibako:
(gatzipakoa!, gatzipakue!)
Ganorabakoa

Gauzeztan hutsa:
(geuzeztanutsa!)
Ez dauana ezertarako balio

Kankala:
(kankalie!)
Ganorabakoa

Mamala:
(mamalie!)
Adimen gutxiko burubakoa
Gauzak modu desegokian egiten dituena

Petobako:
(petobakoa!, petobakue!)
Ez dana ezertaz arduratzen

Sustentzibako:
(sustentzibakoa!, sustentzibakue!)
Ardurarik ez dauana

Susterbako:
(susterbakoa!, susterbakue!)
Ganorabakoa

Txairo:
(txairoa!, txairue!)
Buruarina

Txatxala:
(txatxalie!)
Buruarin berritsua

Txolin:
(txoliñe!)
Burubakoa

Txontaburu:
(txontaburue!)
Txoriburua

Txoriburu:
(txoriburue!)
Buruarina

Txotxolo, txotxola:
(txotxoloa!, txotxolie!)
Memelo, buruarina

Txitxilinborlas:
(txitxilinborlas!)
Buruarin ardurabakoa

Trentinbako:
(trentinbakoa!, trentinbakue!)
Patxadabakoa

Zoro:
(zoroa!, zorue!)
Zentzunik gabe jokatzen dauana

2.3. SEXUAREKIKOAK:

Adar-zorrotz:
(adarzorrotza!)
Zakila beti prest dauana

Andrazale:
(andrazalie!)
Andreen atzetik dabilena

Atzelari:
(atzelaridxe!)
Emagizona

Marimutil:
(marimutille!)
Mutilen antzera dabilen neska

Maritxu:
(maritxue!)
emagizona

Mariurkulu:
(mariurkulue!)
Marimutila

Mosumerke:
(mosumerke!)
Beti musuka dabilena

Mutilzahar:
(mutilzarra!)
Ezkondubako gizon edadetua

Narrumerke:
(narrumerkie!)
Sexurako beti prest dagoena

Neskabandera:
(neskabanderie!)
Beti aurretik dabilen neska

Neskazahar:
(neskazarra!)
Ezkondubako andre edadetua

Trebera:
(treberie!)
Neska desbideratua, okerra

Txatxalabero:
(txatxalaberue!, txatxalaberoa!)
Sexurako prest dagoena

Tutubero, eperdibero:
(tutuberue!, eperdiberoa!)
Sexu bila dabilena

Urtentxa:
(urtentxie!)
Gazte-gaztetatik sexuarekiko joera dauana

Usobero:
(usoberue!)
Sexu-harreman bila dabilena

Zoro:
(neskazorue!, mutilzoroa!)
Sexu-zaletasuna erakusten dauana

2.4. GAIZTOKERIA DESBERDINEN JABE DIRENEI:

Ainetru:
(aiñetrue!)
Pertsona okerra, denganinoa

Ama putearen seme:
(ama putien semie!)
Bere ama putatzat hartzea

Andra txarriaren seme:
(ama txarridxen semie!)
Bere ama zikintzat hartzea

Barraban:
(barrabana!)
Barrabasa, gaiztoa

Barrabas:
(barrabasa!)
Barraban, bihurria

Bihotzgogor:
(bihozgogorra!)
Sentimendubakoa

Denganino:
(denganiñoa!, denganiñue!)
Okerra

Drogoso:
(drogosoa!, drogosue!)
Bihurrikerietan dabilen umea

Esangaiztoko:
(esangaiztokoa!, esangaiztokue!)
Esandakoa ez dauana egiten

Esantxarreko:
(esantxarrekoa!, esantxarrekue!)
Madarikazioak erabiliz berba egiten dauena

Eskuarin:
(eskuariñe!)
Beti joteko prest dabilena

Faltsu:
(faltsue!)
Egiaz ez dabilena

Guzurti:
(guzurtidxe!)
Guzur asko esaten dituena

Harrapatari:
(arrapataridxe!)
Dena bereganatu gura dabena.

Inpernuko deabru:
(inpernuko diabrue!)
Gaiztakeria askoren jabea

Judio:
(judidxoa!, judidxue!)
Intentzio txarreko azkarra

Kitano, kitana:
(kittanoa!, kittanie!)
Guzurretan eta engainuetan dabilena

Lotsabako:
(lotsabakoa!, lotsabakue!)
Gizalegez hezibakoa

Lupu:
(lupue!)
Azpijokoetan dabilena

Madarikatu:
(madarikatue!)
Izate txarra dauana

Oker :
(okerra!)
Gaiztokeriak egiten dituena

Osti:
(gizonostidxe!, umeostidxe!)
Pertsona txarra

Saguzar:
(saguzarra!)
Asko jakin eta beti berea egiten dauana

Sasiosteko:
(sasiostekoa!, sasiostekue!)
Bere bikotea ez danarekin sortutakoa

Sorgin:
(sorgiñe!)
Gaiztokeria askoren jabea

Traste txar:
(traste txarra!)
Gaiztoa

Txakur:
(txakurre!)
Haginka eginda, daukazuna kenduko deutsuna

Txakurkume :
(txakurkumie!)
Txakurraren kumea

Txarri :
(txarridxe!)
Besteei beti txarto egiten dabilena

Zantar :
(zantarra!)
Gauza txarrak egiten dituena

Zapo:
(zapoa!, zapue!)
Azpikerien bidez kalte egiten dauana

2.5.-Alferra edo ardurarik hartzen ez dauanari:

Alperdo, alperda:
(alperdoa!, alperdie!)
Alfer-alferra

Alperrontzi:
(alperrontzidxe!)
Beharra ez jakona gustatzen